

## BERTSOLARI TXAPELKETA ERATZEAREN BERRIAK

*Donostia, 1980-I-25*

*Jose Mari Iriondo, Bertsolaritza batzordeko idazkaria*

Arratsaldeon.

EUSKAL HERRIKO BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIko kontu-ematea egin behar dudala gaur esan didate, ahalik labur eta zehatzen. Erabateko lan oso bat egiteko, denbora eskasi gogorra izan dut. Eta hala ere, bihoaz zenbait datu Erregen egunez haundikiro Karmelo Baldan amaitu zen Txapelketa horri buruz. Bestalde, emango ditudan datuek balio bezate, gaur edo bihar, azterketa bat nik baino sakonago egin nahi lezakenarentzako, ez bait dut uste TXAPELKETA NAGUSIA bertan behera uztekoa denik. Izan du alderdi makurrik; baina balantza batetan jarriz gero, alderdi on gehiago izan duela aitortuko nuke, txapelketa ondorengo egunetan egunkari eta aldizkariak ere horrela egin dutela gogoraziz.

### **Txapeldun berri bat**

Hamabi urtetako etenaren ondotik egin dugun BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIAK, txapeldun berri bat eman digu. Izen berria, txapelketetan lehenengo aldiz azaldua; eta bertsolari berria, estilo aldetik ere. Xabier Amuritzak, Basarri-Txirrita-Uztapide izen haundien zerrendara igotzeko merituak egin ditu; eta, hor dago. Bertso-aro berri baten hasiera da, agian, bat baino gehiagok esan duenez.

Bigarren saria ere, bizkaitarrek eraman dute: Jon Enbeitak.

Ez dut uste zer esanik dagoenik, juradoaren iritziarekin bat etorri bait dira lehen aipatu egunkari eta aldizkarietako kritikoak ere. Pozgarri da hori guretzat; eta epai-mahaiak merezi txalorik onena ere horixe dela esango nuke. Goiz Argi, Zeruko Argia eta Anaitasunako azken zenbakietan iritzi berdintsuak eman dira, juradoaren lanari buruz: "Epaialarien lanari dagokionez, zuzen jokatu dutela esango nuke, dio Ramon Garaik. Gizon jakintsuak ziren eta oso ongi neurtu izan dute lana".

Zer txalo hoberik?

Orain 45 urte hasitako Txapelketak, eta lehen esan bezala 12 urtetako etenaren ondotik, zuzperraldi ona izan du, beraz, Erregen egunez.

Eta bertsolaritza ere, gauregungo gizarteak eskatzen eta esijitzen duen sail urbanoago batetarako gai dela ikusi izan da.

### **Jaialdiak**

Bertsolari Txapelketa Nagusia, hiru egunetan zehar egindako SEI jaialditan erabaki da.

Arrasate eta Gernikako Polikiroldegietan, 1979.eko Abenduaren 23 eta 30an. Eta jaialdi nagusia, finala, Donostiako Karmelo Baldan, goiz eta arratsalde ere, Erregen egunez, 1980.eko Urtarilaren 6an.

Lehenengo bi egunetan giro ona izan ba genuen, Karmelo Baldakoa ikusgarria izan zela esan behar, nahiz eta prentsak eta irratiak ere, ez dakigu zer arrazoi ixil dala medio, laguntza haundirik ez zigun eman. Eskupekoa hartzen ohiturik edo grinaturik dagoen zenbait “kazetari” guztiz euskal-zalek, edozein proba edo aizkol-apustu baino ondotoxoz ere guttiago aipatu digu Bertsolari Txapelketa Nagusia. Errua, geurea izan da, agian. Ez bait genuen uste edo... ez genuen sinetsi nahi horrelako esijentziak izango genituenik.

Baina, ekina egina da. Eta Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusia 1980, hor dago, Amuritza txapeldun eta, Enbeita Jon, bigarren dituelarik.

### **Txapelketarako lehen urratsak**

Antton Aranburu zirikatzaille genuelarik, aspalditxotik genbiltzen alde batera-bestera, txapelketa egin behar genuela ametshaundiak eginez. Dozenerdi bat bilera egin ondoren, beti amets hutsetan ibil ez gintezen, Euskaltzaindiko bertsolari batzordea Donostian bilerazi genuen 1978.eko Abenduaren 22an. Juanjo Zearreta, Juan San Martin, Abel Muniategi, Mariano Izeta, Fernando Artola, Jose Mari Aranalde, Antonio Zabala, Mitxel Itzaina, Alfontso Irigoien eta ni nerau bildu ginen. Eta bertan behera, Euskaltzaindiaren ardurapean, Urtarrilaren 12rako bertsolariek duten Batzordeari dei egitea erabaki genuen, berekin elkar lanean zerbait egin genezakeen aztertu eta ikusteko. Bildu ginen bildu. Ez genuen bilkura hartatik animo haundirik atera. Bertsolariek ez zuten begi berdinez ikusten Txapelketa hori. Honelako ekin-tza bati lotzeko, hotz eta motz aurkitu genituen. “Herria borroka armatuan ari den artean txapelketa bat egitea, bitxikeria merkea izango litzateke” bota zigun bertsolarietako batek. Ez zuten askorik balio gure argudioek.

Alabaina, bertsolarien batzordeko bi-hiruren iritzia zela soilik-eta, berri-ro Loiolan bertsolari guztiakin bildu nahi genuela bota genien. Baina orduan ere, hiru-lau lagunek bakarrik erantzun zuten. Hasi genuen bideari uko egite-

kotan ez geunden ordea; eta Maiatzaren 5ean (1979koan) beste bilera bat egin behar genuela eskatu genien bertsolariei. Eta, bat eta besteari geuk ere dei egin genion badaezpada. Lazkano, Agirre, Larrañaga, Gorrotxategi, Igarzabal, Sebastian Lizaso, Aittola, Zeberio, Narbaiza, Azpillaga, Iraola, Murua, Mendizabal eta beste bakarren bat etorri zitzaizkigun. Luzez hitzegin eta diskutitu ondoren, batzuen ezezkoa nabarmena zen. Baina, beste norbaitzuk konformatuko ziratekela ohartu ginen.

Elkar-lanerako genituen amets politikak utzi, eta... “baldintzak seinala genitzala” eskatu ziguten. “Nahi zuena etorriko zela eta nahi ez zuena ez”. Orohar, iritzi hori jaso genuen.

### **Oinarriak eta deia**

Bertsolariekin elkar-lanerako girorik ez zegoela ohartu ginenean, Euskaltzaindiko Bertsolari batzordekook, oinarriak antolatu eta Euskaltzaindiari aurkeztu genizkion, Irailaren azkenengo bileran. Baldintzaz batean, lehen eta bigarren mailako bertsolari gehienek zerrenda ere egin genuen, nondik-nora hasi kontuak ateratzeko. 90 bertsolarien izenak damazkigun zerrenda hor dago. Ez daude hor denak. Beste hogeit bat falta direla ikusi dut geroztik.

Euskaltzaindiak aurrera egiteko bidea eman zigun bezain azkar, 1979.e-ko Urriaren 20an berriro bertsolariekin bildu ginen Loiolan, eta baldintzak entregatu genizkien, etorri ez ziren lehen mailakoei korreoz bidaliz. Oinarrietan, lehen mailako 14 edo 16 bertsolari behar genituela esaten genuen. Eta kopuru hori lehen mailakoz osatzen ez ba zen, zenbait txapelketa eta sariketan nabarmenduriko Gazteak onartuko genituela.

Bertsolari bat baino gehiagok, lehenengo momentutik erabaki zuen parte-hartzea, beste askok lehenengo momentutik ezetza erabaki zuen bezelaxe.

Azaroaren 15 artekoa eman genien erantzuteko, telefonoz nahiz idatziz, eta nahiago zuenak hitzez-hitz.

Epea bete zenerako, lehen mailakoetatik 11 bertsolarik baiezkoa eman zuten. Eta bigarren mailakoetatik, beste 16k.

Ezezkoen artean, arrazoi desberdinak eman zitzaizkigun. Ez dago izenak zertan aipatu. Baina, norbaitek, urteen pixua zuen aitzaki. Beste batek, osasuna. Beste hark, ez zuen bide garbirik ikusten. Besteak, ez zela txapelketako gizona esan zigun. Norbaitek, bitxikeria zela eta gabonak lasai pasatu nahi zituela. Eta, gogorragoa dena, beste norbaitek, EUSKERA pikutara ba doala eta ez duela erremedio merkeetan ibiltzeak balio. Funtsean, beldurra eta ikara zegoen. Eta, guk konprenitzen dugu beldur eta ikara hori, beste aitzakiak deusik balio ez ba digute ere.

### **Txapelketarako bertsolariak hautatzea**

Lehen mailakoak 11 eta bigarrenekoak beste 16,27 bertsolari geneuzkan 16 postu betetzeko.

1979.eko Azaroaren 22an, Donostiako Diputazioan bildu ginen berriro Juan San Martin, Juango Zearreta, Juan Mari Lekuona, Jose Mari Aranalde, Antton Aranburu eta ni nerau. Abel Muniategik etorri ezina adierazi zuen. Kriterio desberdinik bai bait zegoen, eztabaida luzea sortu zen lehen mailakoen osagarri hautatu behar genituenez. Baina, iritziak-iritzi, arautegiak esaten duenari lotu gintzaizkion:

“Txapelketa honetarako izena ematen duten lehen mailako bertsolariak gutxiegi balira, azken urteotako Bertsolari Gazteen Txapelketa eta Sariketetan nabarmendu diren bertsolarietara deitu behar zaie”.

Eta horren arabera, eskaintzea eginda zeuden hamaseititik, Jon Enbeita, Patxi Iraola, Angel Larrañaga, Koxme Lizaso eta Jon Narbaiza hautatu genituen, Amuritzza, Azpillaga, Arregi, Egileor, Etxeberria, Ezponda, Garmendia, Mitxelena, Mugartegi eta Xanpun-ekin hamaseikoa osatzeko. Gazte horiek, IdiazabalGo Zepai sariketan, Añorgako Orixe sariketan, Gipuzkoa eta Bizkaiko bertsolari gazteen txapelketan, Loiolako herri irratikoan, Zaldibikoan etab., txapeldun izanak bait ziran.

Suplentetzarako, Xabier Zeberio, Santi Zabala “Lexo”, Mitxel Xalbador eta Mañukorta aukeratu ziren, ordena horretan.

### **Lantaldeak**

Egunak gainera zetozela-eta, Donostiako bilera horretan berorretan lantaldeen hautaketa ere egin genuen, egun horretako akta-agirian Euskaltzaindiari kontu ematen zaionez:

a) Epai-mahaia: Antton Aranburu (idazkari), Juan Mari Lekuona, Abel Muniategi, Mitxel Itzaina, Jesus Mari Etxezarreta “Izazpi”, Jose Mari Aranalde, Antonio Zabala, Juan San Martin, Alfontso Irigoien, Fernando Artola “Bordari”. Arautegian 10 gizon behar direla esaten bait da.

b) Gai-emaila eta aurkezlaria: Joxe Mari Iriondo.

c) Gai-batzordea: Antton Aranburu, Antonio Zabala, Jose Mari Aranalde, Juan San Martin, Fernando Artola “Bordari”, Juan Mari Lekuona eta Jose M. Iriondo.

d) Antolaketa eta Publizitate batzordea: Juanjo Zearreta, Iñaki Beobide, Antton Aranburu, Juan San Martin eta Jose Mari Iriondo.

Esan gabe doa batzuen lana errazagoa eta arinagoa ere izan dela besteena baino. Baina ekipoak antolatzea ezinbestekoa ikusi zen, lan asko

zegoen-eta egun gutxitan egin beharrekorik. Bestalde, Gabon eta Urte Zahar-Berri ingurua ez da lanerako garairik onena ere.

### **Kultur kontseilaritzarekin harremanak**

Bere laguntza pozarren emango zukeela adierazi zigun Kultur Kontseilaritzak, Imanol Olaizolaren bidez. Eta halakoxe "ofizialtasun bat lortzeko" eta gisa honetako ekintzek oraindainokoa izan ez duten babesa izan genezan, eskuhartze hori interesgarria iruditu zitzaigun. Horrela jakinerazi genion Euskaltzaindiari Juan San Martin eta Jose Luis Lizundiaren bidez. Eta ontzat eman zen.

Eskuhartze horrek bere alderdi makurrik era ba zuen, edo izan zezakeen. Baina eginik genituen presupostoetan 950.000 pezetako koska gelditzen zitzaigunez, eta Euskal Diputazioetara eta Aurrezki Kutxetara hurbiltzeko bide ona zen. Eta bestetik, irratia eta prentsarekiko harreman guztietarako ere, irrati eta prentsa ofizialen kasuetan behintzat, egokia zirudien, gero nahi genuen eta agindu zitzaigun guztia lortu ez ba genuen ere. Azkenengo jaialdi nagusia, osorik eta zuzenean telebisatzeko hitza eman zitzaigun. Eta Urtarrilaren 3an Bilbora deitu nuenean, gauzak zer-nola ote zeuden jakin nahiez, ez zegoela ez zuzenean eman eta ez video egiterik ere esan zidaten. Harri eta zur utzi gintuzten. Baina errealtatea hori zen. Ordainez, pelikula bat egin zezate-la gutxienez ere eskatu genien; eta... horrela egin zuten. Egin ba zuten egin! Akerraren hadarrak baino bihurriago gertatu zitzaigun lan hori, berrogei minutu erreportaia bat bi aldiz eman ahal izan ba zen ere.

Gainerakoan, prentsa eta irratia, salbuespen batzuk aparte, ez zigun gehiegizko laguntzarik eman. Geure erruz, agian. Hurrengo batetarako ere esperientzia ona dela deritzagu. Eta inola ere ahaztu ezinezkoa, gainera.

### **Argitarapen eskubideak**

Txapelketako bertsoak argiratzeko eskubideei dagokienez, gero sor zitezkeen arazoak eta nahaspilak aldeztu aurretik lotu nahi izan ziren. Bertsoak liburuan argiratzea, berak horrela nahi ba zuen, Antonio Zabalak Auspoan egin zezan uztea erabaki zen, bestela subasta egiteko.

Lan hori, bere gain hartu zuen; eta oker ez ba gara, azkenengo jaialdikoak argiratuko ditu.

Grabaketari buruz, lan hori subastatu egin zen. Eta eskerrak horrela egin zela. Bilboko Xoxoa argialetxea eta Elkár-iz-herri gogoia hirukoaren eskaintzak izan zirEn. Hiruko honek, urak bere errotara eraman zituen, bost urtetako eskubideak 525.000 pezeta ordainduz. Kaxeteak plazaratzen ari direla ikusi dugu. Eta ongi ikusten dugu, bertso-zaletasuna zabal dadin.

## Sariak

Bertsolari Txapelketa honen beste puntu diskutigarria, norbaiten iritziz, sarien saila izan bide da. Alabaina, bertsolaritza edozein literatur sariketaren mailara jaso behar zela uste genuen. Eta horregatik eskaini zen horrenbeste sari, ez bertsolaria zirikatzeke. Eta gehienez ere, bi ikuspegiak lortu nahiez.

Lehenengo saria, 200.000 pezeta, Euskaltzaindaren txapela eta Eusko Kontseilu Nagusiaren izenez, Jorje Oteizaren ertsolaari irudia, Xabier Amuritzak eraman zituen.

2.—100.000 pezeta eta Eskualtzaleen Biltzarreko Makila, Jon Enbeitak. Gainerako sariak, alfabeto-ordenaren arabera, honela:

- 50.000 pezeta eta Arabako Diputazioaren saria, Jon Azpillaga.
- 50.000 pezeta eta Bizkaiko Diputazioaren trofeoa, Etxeberria.
- 50.000 pezeta eta Arrasateko Udalaren trofeoa, Gorotxategi.
- 50.000 pezeta eta Donostiako Udalaren trofeoa, Anjel Larrañaga.
- 50.000 pezeta eta Gipuzkoako Diputazioaren trofeo, Txomin Garmendia.
- 50.000 pezeta eta Gernikako Udalaren trofeo, Xanpun.

Doinu desberdinek gehien erabiltzen zituenarentzako, Iz-Elkar-Herri Gogoaren saria, Patxi Etxeberriari eman zitzaion. Eta doinu Berri gehien erabiltzen zituenarentzako zegoena, Xabier Amuritzari. Biotatik lehenengo saria, Argentinatik etorrita hemen zebilen Pedro Mari Otañoren alabak eman zuen.

## Bertsolarien taldekatzea

Bertsolari Txapelketa Nagusia, hiru egunetan egin da, lehen ere aipatu denez.

1979.eko Abenduaren 23an, Arrasateko Polikiroldegian, Jose Mari Arregi, Jesus Alberdi "Egileor", Patxi Etxeberria, Txomin Garmendia, Joakin Mitxelena, Jon Narbaiza eta Xanpun-ek kantatu zuten. Arratsaldeko jaialdian berriz, Xabier Amuritz, Jon Azpillaga, Jon Enbeit, Ezponda, Jose L. Gorrotxategi, Patxi Iraola, Anjel Larrañaga eta Jon Mugartegik. Taldekatzea, zortzi egun lehenago hamasei bertsolariekin egindako lagunarteko bazkarian erabaki zen, horretarako zotz eginez.

Abenduaren 30ean, Gernikako Polikiroldegian, alderantziz kantatu zuten. Arrasaten goizetik kantatu zutenek, arratsaldez; eta arratsaldez kantatu zutenek, goizez (1).

(1) Mitxelenak Arrasaten ondoeza izan zuen. Honen hutsunea, Gernikan, Xabier Zeberriok bete zuen; puntuaziorako baliorik gabe.

Gernikako bi jaialdiak amaitzean, eta... Arrasate-Gernikako saio osoaren arabera, epai-mahaiak, Amuritza, Azpillaga, Gorrotxategi, Enbeita, Etxeberria, Garmendia, Larañaga eta Xanpun klasifikatu zituen Donostiarako.

Azkenik, Donostiako jaialdia, Karmelo Baldakoa alegia, goiz eta arratsaldean egin behar zela erabaki zen, bertsolarien oniritziz. Eta puntuaketari zegokionez, hutsetik hasita egin behar zela azkenengo jaialdia.

Zortzi bertsolariak goizetik eta zortzi arratsaldetik aritu ziren. Baina, lehenengo eta bigarrenaren arteko norgehiagoka bat planteatu zen azkenean, alde aurretik bertsolariak egindako eskabidea onartuz. Bigarren-hirugarren-laugarren arteko auzia ilunagoa zatekeen momentu hartan; baina, horrela erabakirik zegoen alde aurretik, esan dugun bezala.

### **Epai-mahaiaren aburuak**

Epai-mahaiak, berak ere neurketarako abiapuntu bat izan zezan, eta bertso-zalea nahaspila ez zedin, honako aburu hauez baliatzea erabaki zuen juradoak:

a) Gaia: gaiari zehatz heldu eta gainera sakondu eta aberastu behar du bertsolariak.

b) Hizkuntza: esateko moduaren edertasuna.

c) Egitura: gaiaren sarrera, jarraipena eta bukaera.

d) Neurriak eta puntuak: neurria musikaren arabera, puntuetan, potoez gainera, ia aberatsak, errazak edo pobreak direnari begiratuko zaio.

Juradukoak 1979.eko abenduaren 20an, Arrasaten, egindako bilera batetan onartu ziren oinarriok.

### **Amaitzeko**

Aurrera begira, zer?

1980.eko BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIA hor gelditu da. Ikasbide ederra, hurrengorako ere. Horretan ari izan garenok, autokritika sakon bat egin beharko dugu, eta zuzendu eta hobetzeko dagoenik zuzendu eta hobetu ere. Hiru urtez behin txapelketa egitea erabaki zuen Euskaltzaindiak. Hiru urte, laster joango dira. Laster, herrietako, bailadako eta probintziako SARIKETA antolatzaileekin hizketan hasi beharko. Añorga, Idiazabal, Errenteria, Mallabia, Mungia, Zaldibi, Gabiria... Sariketak egiten,

antolatzen ari denik ba da Euskal Herrian. Euskaltzaindiak beroiekin kontatu beharko du aurrera begira, lanak errazteko, lan berdintsuetan dabilen jendearekin batean lanak egiteko, eta... zerotik abia ez gaitezen.

Guztiau aipatu besterik ez dut egiten. Goraintzi, eta hortik aurrekoa, denon eginkizuna dela deritzat.